

Laudioko Udala

Laudio Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak 2017ko apirilaren 21ean hartutako erabakiaren laburpena. Erabaki horren bidez onetsi ziren Genero Indarkeriaren Biktimia izan diren Emakumeei Laguntzeko 2017ko Programaren deialdia eta oinarri arautzaileak.

Azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren, Diru-laguntzei buruzkoaren 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan aurreikusitakoarekin bat, argitara ematen da deialdiaren laburpena. Horren testu osoa kontsulta daiteke Diru-laguntzen Datu Base Nazionalen <http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans/index>

Lehenengoa. Onuradunak.

Genero-indarkeriaren biktimia izatearen egiaztatzea izan gabe ere eta erasotzailea salatu ez arren, genero-indarkeriaren biktimia diren emakumeak.

Bigarrena. Xedea.

Laguntza ematea genero-indarkeriaren biktimia izan diren, kalteberatasun-egoeran dauden eta diru-sarrerak bermatzeko errenta (DSBE) edota etxebizitzarako prestazio osagarria (EPO) jaso ezin duten emakumeei.

Hirugarrena. Oinarri arautzaileak.

Laudio Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak onetsi zituen 2017ko apirilaren 21ean. Arabako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira 2017ko maiatzaren 3an.

Laugarrena. Zenbatekoa.

Ezingo du gainditu indarrean dagoen aurrekontuan jasotako zenbatekoa, zehazki, Hezkuntza, Berdintasun eta Gazteria Arloko aurrekontuaren barruko 0800-2317-480.09 aurrekontu partidan, Genero-indarkeriaren biktimentzako larrialdiko laguntzak izenekoan 2017. urterako kontsignatutakoa, alegia, 31.667,76 €.

Bosgarrena. Eskaerak aurkezteko epea.

Arabako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunetik 2017ko abenduaren 31 arte.

Laudio, 2017ko apirilak 26.

Alkate-udalburua, Jon Iñaki Urkixo Orueta.